



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/07/18

Aldundiak "indartu egingo dau" 2017an Bizkaiko enpresa txikiei eta ertainei zuzendutako "3i" laguntza programea

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako diputatua Batzar Nagusietara etorri da, Podemos Bizkaia taldeak eskatuta, "3i" programaren barruan Bizkaiko hamabi enpresari emondako laguntzen barri emoteko. Aurtongo deialdiak gure lurraldeko enpresa txikien eta ertainen artean izan dauen "harrera ona" ikusita, datorren ekitaldian programa hori "indartu egingo dala" adierazo dau foru diputatuak.

Enpresa txikiei eta ertainei zuzendutako programak, "itzultzeko beharrik bako" 500.000 euro arteko laguntzak eskaintzen ditu, laguntza horreek baimentzen dituan Europa mailako araudi "zorrotzean eta aukeraketakoan" oinarrituta. Lehenengo deialdian, Foru Aldundiak "283.000 euro" emon deutsez batez-beste Bizkaiko enpresek aurkeztutako 12 proiekturi, aurkeztu diran "52 eskarien" artetik. Aurrekontua 750.000 eurotan handitu da, "3.400.000 eurora" heldu arte. "Enpresa gitxiago aurkeztea aurreikusten genduan", autortu dau, lehenengo emaitzak "bikainak" izan dirala esan aurretik.

Programak, "45 milioi euroko" eragin ekonomikoa gauzatzeko aukerea emongo dau, enpresek eurek egindako kalkuluak beteten badira. Enpresa txiki eta ertain horreek "257 milioi euro fakturera" helduko dira, hasierako 170 milioietatik abiatuta, "225 enplegu barri" sortuz. Orain arte izan daben "1.028 pertsonako lantaldea izatetik 1.253 pertsonak osotutakora" igaroko dira.

"Konkurrentzia libreko" lehiaketa hori irabazi daben enpresak honeek izan dira: Ekide taldea, Engranajes Ureta, DYFA, finantza zerbitzuen NEAR zentroa, Navacel, Metal Smelting, Lebario, Barna, Dibal, Ona Electro Erosion, Fundiciones Garbi eta Izar Cutting Tools. Emondako laguntza handienak 500.000 eurokoak izan dira, eta txikienak, barriz, 172.000 eurokoak.

Lehiakortasunaren Euskal Institutuaren laguntzea izan daben programari esker Aldundiak, "oso proiektu interesgarrien" bitartez "3i" izenekoan (Nazinoartekotzea, Barrikuntzea eta Inbertsinoa) aldeko apustua egiten daben Bizkaiko enpresa errealidadeko "txapeldun ezkutak" "identifikatu" ahal izan ditu. Hori dala eta, Pradalesek zuzentzen dauen sailak hemendik aurrera programea "indartzearen" eta beste programa batzuk "barrikustearen" eta "antzeko ildora bideratzearen" aldeko apustua egingo dau. Hurrengo deialdian zabaldu egingo da gaur egun indarrean dagon 18 eguneko epea.

DIRU-BILKETAK "%1,8" EGIN DAU GORA BAGILERA ARTE



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Beste alde batetik, Bizkaiko Talde Popularrak, lehenengo lau hilebeteetan izan dan diru-bilketaren jatsierea dala eta sailean murrizketarik egongo dan ala ez jakin gura izan dau. Gai hori Aldundiko sail guztietako arduradunei bideratu deutse.

Pradalesek iragarri dauenez, tributu kontzertauak dirala eta bagilera arte metatutako diru-bilketea igazko epealdi berekoa baino “%1,8” handiagoa da. Hori dala eta, igazko seihileko berean jasotako dirua baino “51 milioi euro baino gehiago” gehiago jaso dira. Holan, diru-bilketak “4,6” puntu berreskuratu ditu apirilera arte izandakoagaz alderatuta. Hilebete haretan diru-sarrerek %2,8ko jatsierea erakusten eben.

Joerak aldaketea erakusten dauen arren, “neurri gogorragoak hartu aurretik” Bizkaiko erakundeek –Foru Aldundiak eta Udalek–, PFEZren eta Soziedadeen zergaren ekitaldia abuztuan zelan ixten dan ikusi arte “zuhurtziaren” bidetik jarraitu behar dabela azpimarratu dau barriro Pradalesek. Izan be, oraindino, udagoiengan Finantzen Euskal Kontseiluan egin ziran diru-sarrereren aurreikuspenetatik “urrun gagoz”.

Pradalesek barriro aitatu ditu Foru Aldundiak gaindituko ez dituan marra “gorriak”, “Administrazinoko zerbitzu publikoakaz, gizarte arloko zerbitzuakaz edo garraio publikokoakaz jarraitzea”, hain zuzen be. Bere sailari jagokonez, Pradalesek esan dauenez, doikuntzak, egotekotan, II. kapitulu jasoten diran inbertsinoetan izango dabe eragina. Kapitulu horretan “azterlanak eta laguntza teknikoak, foru egoitzetan egiten diran obra txikiak eta publizidadea eta propaganda” dagoz.

EZPONDAK BERRESKURATZEKO PROIEKTU PILOTUA

Saio berean, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako batzordeak Talde Mistoaren agerraldi eskari bat gauzatu dau, Pradalesek, errepideetako lanetan ezpondak hobetzeko “gunitatutako teknozoruen” aplikazino esperimentalaren emaitzen barri emon daian.

Diputatuak adierazo dauenez, 2012an bukatutako obrea dan Gaztelugatxeko San Joango saihsbidean gauzatzen ari dan proiektua joan dan bagilaren 8an hasi zan, “teknozoru” bat aplikauta –araztegietatik edo mozketen hondarretatik datorren materia organikoz eta inorganikoz osatuta dagon substratu ez toxikoa– errepide horretako hegaletako batean. Bertan hormigoi armaua proiektu zan, harkaitzetako landaredia sartzea errezteko.

Diputatuak jakinarazo dauenez, proiektua errepide horretako “19 lur-sailetan” gauzatuko da eta 3 urte iraungo ditu. Denpora tarte horretan, Konpostelako Donejakueko Unibersidadeko Ingurumeneko Teknologia Laborategiaren aholkularitzea daben Aldundiko teknikariek, lekuan bertan aplikauko diran nahasketen bilakaerea aztertuko dabe, emaitzak ikusteko, iraunkortasunari eta kostu ekonomikoari jagokenez.

HOBKUNTZEN AZTERKETEA SANTO DOMINGOKO SARBIDEAN



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Dana dala, batzordeari hasierera emoteko, EH Bilduk ahozko erantzun-eskea egin dau, diputatuak BI-3741 errepidearen (Enekuri-Santo Domingo) egoereari eta egin beharreko hobekuntzei buruzko azterlana bukatuko dan dataren gaineko aurreikuspena emon daian. Pradalesek adierazo dauenez, txosten hori “garagarrilaren 4an” amaitu zan, eta aste honetan bertan bialduko da Bizkaiko Batzar Nagusietara, Batzarrek eurek emondako agindua betez. Aldundiko arduradunak esan dauenez, bere saila inguru horretako biztanleakaz alkartuko da bihar, txostena azaltzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

18/07/2016

La Diputación "fortalecerá" en 2017 el programa de ayudas "3i" dirigido a pymes vizcaínas

El diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha comparecido en las Juntas Generales, a petición de Podemos Bizkaia, para explicar las ayudas concedidas a doce empresas vizcaínas, dentro del programa "3i". Dado la "buena acogida" de la convocatoria de este año entre las pymes del territorio, el diputado foral ha anunciado que dicho programa se "fortalecerá" el próximo curso.

El programa dirigido a pymes ofrece ayudas "a fondo perdido" de hasta 500.000 euros en base a un reglamento europeo "exigente y selectivo" que las permite. En la primera convocatoria, la Diputación ha otorgado una media de "283.000 euros" a 12 proyectos de empresas vizcaínas, de un total de "52 solicitudes" presentadas, ampliando el presupuesto en 750.000 euros, hasta los "3.400.000 euros". "Esperábamos que presentaran bastantes menos empresas" ha reconocido antes de definir el resultado de estas ayudas de "excelentes".

El programa permitirá desarrollar un impacto económico de "45 millones de euros", según cálculos hechos por las propias empresas. Estas pymes pasarán "a facturar 257 millones de euros", de los iniciales 170 millones, creando "225 nuevos empleos". La plantilla de estas empresas crecerá "de 1.028 personas, a 1.253 personas".

Las empresas ganadoras de este concurso abierto "por libre competencia" han sido: el grupo Ekide, Engranajes Ureta, DYFA, centro NEAR de servicios financieros, Navacel, Metal Smelting, Lebario, Barna, Dibal, Ona Electro Erosion, Fundiciones Garbi e Izar Cutting Tools. Las ayudas concedidas van de un máximo de 500.000 euros a un mínimo de 172.000.

El programa, que ha contado con el apoyo del Instituto Vasco de Competitividad, ha servido a la Diputación para "identificar" a "campeones ocultos" de la realidad empresarial vizcaína que apuestan por las "3i" (Internacionalización, Innovación e Inversión) con proyectos "muy interesantes". Por ello, el departamento que dirige Pradales apostará por "fortalecer" el programa en el futuro y "revisar" otros programas con el fin de "orientarlos a una línea similar". En la próxima convocatoria, el plazo actual de 18 días será ampliado.

LA RECAUDACIÓN AUMENTA UN "1,8%" HASTA JUNIO

Por otro lado, el grupo Popular Vizcaíno quería conocer en qué medida se iba a notar la bajada de la recaudación en los primeros cuatro meses del año en el disponible departamental, cuestión que ha lanzado a los responsables de todos las áreas forales.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Pradales ha anunciado que la recaudación acumulada total hasta el mes de junio por tributos concertados ha crecido un “1,8%” respecto al mismo periodo del año anterior, lo que supone ingresar “más de 51 millones de euros” mas que durante el mismo semestre del año pasado. De este modo la recaudación recupera “4,6” puntos respecto a la obtenida hasta abril, momento en el que los ingresos reflejaban una caída del 2,8%.

Pese a este cambio de tendencia, Pradales ha insistido en que las instituciones vizcaínas -Diputación y ayuntamientos- deben seguir por el camino de la “prudencia” y ver cómo se cierra el ejercicio de IRPF y Sociedades en agosto para evaluar la situación, “antes de tomar medidas más drásticas”, ya que aún "nos encontramos lejos" de las previsiones de ingresos que se realizaron, en otoño, en el Consejo Vasco de Finanzas.

Pradales ha insistido en las líneas “rojas” que la institución foral no va a sobrepasar como son el mantenimiento de los “servicios públicos de la Administración, los servicios sociales o el transporte público”. En lo que concierne a su departamento, Pradales ha señalado que los ajustes, de haberlos, podrían afectar en todo caso a inversiones del capítulo II, en donde se concentran "los estudios y asistencias técnicas, obras menores en dependencias forales, y publicidad y propaganda".

PROYECTO PILOTO PARA RECUPERACIÓN DE TALUDES

En la misma sesión, la comisión de Desarrollo Económico y Territorial ha sustanciado una petición de comparecencia del grupo Mixto para que Pradales explicara los resultados de la aplicación experimental de “tecnosuelos gunitados” para rehabilitar taludes en obras viarias.

El diputado ha señalado que el proyecto que se desarrolla en la variante de San Juan de Gaztelugatxe, obra finalizada en 2012, comenzó el pasado 8 de junio con la aplicación de un “tecnosol” -un sustrato no tóxico compuesto por materia orgánica e inorgánica procedente de estaciones depuradoras o restos de podas y talas- en una de las laderas de esta carretera en las que se proyectó hormigón armado, con el objeto de facilitar la introducción de vegetación rocosa.

El diputado ha advertido que el proyecto se desarrollará en "19 parcelas diferentes" de esta carretera y durará 3 años. En ese tiempo, los técnicos forales, que cuentan con el asesoramiento del Laboratorio de Tecnología Ambiental de la Universidad de Santiago de Compostela, observarán la evolución de las diferentes mezclas que se aplicarán en el terreno para ver los resultados en cuanto a durabilidad y coste económico.

ESTUDIO DE MEJORAS EN EL ACCESO DE SANTO DOMINGO

La comisión ha arrancado, no obstante, con una pregunta oral de EH Bildu que pedía al diputado una previsión sobre la conclusión del estudio sobre el estado de situación y



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

mejoras a realizar en la carretera BI-3741 (Enekuri-Santo Domingo). Pradales ha indicado que dicho informe se finalizó el “4 de julio” y que esta misma semana se remitirá a las Juntas Generales de Bizkaia, cumpliendo así en tiempo un mandato de la Cámara. El responsable foral ha anunciado que mañana el departamento se reunirá con vecinos de la zona para explicarlo.